

## 08/2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2019KO MAIATZAREN 20EAN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

##### IDAZKARIA:

Itziar Azurza Sorrondegui

Anoetako udaletxean, 2019ko MAIATZAREN 20ean eguerdiko hamabi terdietan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ez ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkatearen lehendakaritzapean, eta Itziar Azurza Sorrondegui andrea aritu da idazkari lanetan.

Jose Ignacio Otermin Garmendia, Pedro María De la Iglesia Sanchez eta Francisco Berbel Perez zinegotziak ez dira etorri.

#### 1.- 2018KO AURREKONTU OROKORREKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak jakintzat eman du 2019ko maiatzaren 10eko dekretua, zeinaren bidez 2018 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

##### “DEKRETUA

Anoetan, 2019ko maiatzaren 10ean

Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

##### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

##### DIRUZAINNTZA GERAKINA

|   |            |              |
|---|------------|--------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n: |            | 1.257.276,09 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:        |            | 488.023,14   |
| Aurrekontuko zordunak :                         | 488.038,20 |              |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak:                   | 1.412,14   |              |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak:                   | 1.427,20   |              |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:       |            | 116.325,08   |

|  |           |              |
|--|-----------|--------------|
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:                      | 66.311,62 |              |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:                       | 50.013,47 |              |
| - Aplikatu gabeko ordainketak:                           | 0,01      |              |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):              |           | 1.628.974,15 |
| 5.- Saldo kobragaitzak:                                  |           | 95.926,67    |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:                       |           | 0,00         |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): |           | 1.533.047,48 |

#### AURREKONTUKO EMAITZA

|  |            |
|--|------------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:                                  | 566.491,64 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:      | -1.519,44  |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 213.947,06 |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:            | 0,00       |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):  | 778.919,26 |

#### KREDITU GERAKINAK

|  |              |
|--|--------------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:   | 316.394,89   |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 1.671.412,60 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):      | 1.987.807,49 |

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udaltzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkateak, eta neuk, idazkariak fede eman”.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, eguerdiko ordu bata denean; honetaz guztiaz, nik, idazkariak, fede ematen dut.